

»»» Bermeoko elkarteentzako laguntzak



CDren edukia



Alkarteak

Akta
Batzar-deia
Bazkide-txartela
Bazkideen zerrenda
Data
Esaldi erabilgarriak
Faxa
Helbideak
Internet
Ordainagiria
Telefono-mezuak
Txkeak
Zenbakiak
Ziurtagiria



Txokoak

Akta
Batzar-deia
Bazkide-txartela
Bazkide gastatutakoa
Bazkideen zerrenda
Data
Esaldi erabilgarriak
Etiketak *
Faxa
Helbideak
Hileko erreserbak
Internet
Kartelak *
Ordainagiria
Prezio-zerrenda
Telefono-mezuak
Txkeak
Zenbakiak
Ziurtagiria

Aiztoak • Arraina • Azpilak • Botilak • Edalontziak •
Edariak • Garbiketarako produktuak • Koilara txikiak •
Koilarak • Kopak • Lapikoak • Mahai-tresnak •
Okela • Papera • Paperontzia • Platerak •
Su-itzalgailua • Tenedorak • Zartaginak

Barran bazkideak baino ez
Birziklatzeko olioak
Birziklatzeko papera
Irteterakoan atea itxi mesedez
Komuna ez dabil

Baldintzak: PC edo Mac ordenagailua. Acrobat Reader 6. bertsioa edo gorago eta Microsoft Word.



»»» Sarrera

Liburuxka eta CD hau Bermeoko elkarte eta txokoei zuzendurik dago.

Elkarte eta txoko ugari dago Bermeon, mota guztietakoak: kirolelkarateak, aisialdi-elkarteak, kultur elkarteak, musika-elkarteak, txokoak...; bakoitzak bere ezaugarriak ditu; kide edo bazkide kopurua batetik bestera aldatu egiten da; guztien helburuak ez dira berdinak, ezta funtzionamendua ere; baina denak herri euskaldun batean daude, Bermeon.

Bermeoko Udalak **Geurien be bai** egitasmoaren barruan CD hau argitaratu nahi izan du elkarte eta txokoei laguntza emateko, zeuon jarduna euskaraz egin dezazuen eta, horrela, Bermeon euskararen erabilera ere areagotu dadin.



CDak lagungarri izango zaizkizuen ereduak jasotzen ditu: batzar-deiak, aktak, ziurtagiriak, zerrendak, esaldi erabilgarriak, hileko erreserbak... zeuon lana egiteko beharrezkoak dituzuen materialak, hain zuzen ere. Horretaz gain, argibideen atal bat ere sartu dugu: data zelan idatzi, zenbakiak, Interneten aurki daitezkeen hainbat baliabide...

Liburuxka honetan, berriz, **Geurien be bai** egitasmoaren inguruko azalpena topatuko duzue, baita Bermeoko elkarteei eta elkarteetan euskararen erabilerari buruzko hainbat datu ere. Azkenik, zeuon elkarteetan euskararen erabilera handitzeko hainbat proposamen eta Udalak eskaintzen dizkizuen laguntzak ere hortxe dituzue.

Zeuon interesekoa izango dela espero dugu. Dena den, edozein zalantza edo iradokizun izanez gero, Bermeoko Euskera Sailera jo dezakezue. Besoak zabalik izango gaituzue.



»»» Geurien be bai! egitasmoa

Geurien be bai! egitasmoaren sorrera

Geurien be bai, Bermeoko Udalaren Euskara Sailak 2004. urtean martxan jarritako egitasmoa da. Udalak proiektu hau martxan jarri zuen Bermeoko herriari euskaraz bizitzeko aukera eta indarra emateko.

Geurien be bai! egitasmoaren helburua

Proiektu honen helburu nagusia Bermeoko arlo sozio-ekonomikoan eta elkarteetan euskararen erabilera bultzatuko duen plana garatzea da, plan hitzartu, metodiko, neurtu eta beharretara egokitua, hain zuzen ere, begirunea, parte-hartzea eta adostasuna oinarritzat hartuz.

Herrian euskararen erabilera eta presentzia areagotzea da xedea, Plana erakunde bakoitzaren behar eta ezaugarrietara egokituz, eta euskara erakundeen kulturari eta kudeaketarako sisteman txertatuz.

Hitzarmena sinatzea

Egitasmoarekin bat egitea erabakitzen duten enpresa eta elkarteek urtebeteko hitzarmena sinatzen dute Bermeoko Udalarekin. Hitzarmen horren bitartez enpresa eta elkarteek euskararen erabilera areagotzeko konpromisoa hartzen dute. Udalak ere konpromiso batzuk hartzen ditu:



- Proiektua garatu ahal izateko finantziarioa eta bitartekoak Udalak jarriko ditu.
- Teknikari bat izendatuko du, enpresa eta elkartei prozesu osoan zehar lagundu eta aholkularitza emateko.

Geurien be bai egitasmoan parte hartzen ari diren enpresa eta elkarteak

Orotara, 49 dira planean parte hartzen ari diren erakundeak: herriko kontserba-industria garrantzitsuenak, elkarte profesionalak, sindikatuak, kirol-taldeak, kultur taldeak, txokoak, musika-elkarteak...



»»» Bermeoko elkarteei buruzko datuak



Elkarte motak


Bermeoko elkarteak honela banatzen dira elkarte motaren arabera: %30 txokoak, %30 kultur taldeak, %22 musika-taldeak eta %18 kirol taldeak.

Bazkide-kopurua


Bazkide-kopuruari dagokionez, elkarten %23k 75-90 bazkide inguru ditu. 105 bazkidetik gora eta 0-15 bazkide bitarte dituzten elkarten ehunekoia antzekoa da. Elkarten %56k 60 bazkide baino gehiago ditu.




»»» Euskararen egoera Bermeoko elkarteetan



■ %0-30
 ■ %31-60
 ■ %61-100



■ Euskaraz
 ■ Gaztelera
 ■ Bietara, gaztelera
 ■ Bietara, euskaraz gehiago



■ Euskaraz
 ■ Gaztelera
 ■ Bietara, gaztelera gehiago
 ■ Bietara, euskaraz gehiago

Euskararen ezagutza

Bermeoko elkarte gehienetan, %80n, hain zuzen ere, euskararen ezagutza oso altua da, bazkideen %61-100k euskaraz daki. Elkarteen %14n euskararen ezagutza %31-60koa da. Eta euskararen ezagutza oso txikia da elkarteetan %6n.

Idatzizko erabilera

Bermeoko elkarteetan erdiak baino gehiagok (%54) idatzizko harremanak euskaraz izaten ditu. Hurrengo ehunekorik altuena idatzizko harremanak gaztelaniaz dituzten elkarteena da, %23. Idatzizko harremanak ele bietan egiten dituzten elkarteetan artean gaztelaniaren erabilera handiagoa izaten da.


Ahozko erabilera

Elkarteetan, ahozko harremanak gehiago dira euskaraz gaztelaniaz baino. Izan ere, elkarteetan %70 euskaraz aritzen da beti. Gaztelaniaz lan egiten duten elkarteak %7 besterik ez da. Ahozko harremanak ele bietan dituzten elkarteetan artean, gehiago dira euskara gaztelania baino sarriago erabiltzen dutenak.



»»» Geurien be bai egitasmoan parte hartzen ari diren elkarteak

Geurien be bai egitasmoan parte hartzen ari diren elkarteak 24 dira eta honela banatzen dira elkarte-motaren arabera:



- Kirol taldeak
- Auzo elkarteak
- Txokoak
- Kultur taldeak
- Musika taldeak

Hurrengo zerrendan agertzen dira elkarte hauen guztien izenak:

Elkarte Mota	Elkarteen izena
Txokoak	Adiskide txokoa Hurre-hurre txokoa Takon txokoa Kai gane txokoa
Kirol-taldeak	Bermeoko arraun-elkartea Urdaibai arraun-elkartea Bermeoko futbol-taldea Sollube 707 Urdaibai eskubaloi-taldea Artza pilota-elkartea Xixili gimnasi taldea Saskibaloi-taldea
Musika-taldeak	Izaro abesbatza Bermeotarrak fanfarrea Bermeoko abesbatza
Kultur taldeak	Alkartasuna dantza-taldea Erroxape emakume-elkartea MB 2000 aisialdi-taldea Ikuspegi kultur taldea Euskaraz berbetan taldea Zantzue kultur taldea Bermeoko erraldoein konpartsa Urdaibai begirale-taldea
Auzo-elkarteak	Haitz Nagusije





10 proposamen elkarteetan euskara gehiago erabiltzeko

1. Lehenengo hitza beti euskaraz

Edozein egoeratan, edozein lekutan, beti, lehenengo hitza euskaraz egiten baduzu, beste solaskideak jakingo du euskalduna zarela. Horrela, zuen hartu-emanak euskaraz gauzatzeko aukera izango duzue.

2. Kide berriak datozenean euskaraz egin

Zuen elkartera hurbiltzen denak, jakingo du euskaraz funtzionatu ahal izango duzuela. Behin harremana euskaraz hasita, errazagoa izango da horrela jarraitzea.

3. Hartu telefonoa euskaraz

Bai, esan? Erreza da, ezta? Ba, lixto!

4. Telefonoaren erantzungailua euskaraz

Erraz-erraza da. Telefonía konpainia nagusiek badute euskaraz edo gaztelaniaz jartzeko aukera. Zeuek hitz egiten baduzue, izango da zuenean ahots ederra duen baten bat!

5. Elkarteko edo txokoko oharrak

Komuna ez erabili / Laster baten hemen izango gara...

CDan badaude eredu batzuk. Zuk behar duzuna ez badago, jo ezazu Euskera Sailera; bertan lagunduko dizugu.

6. Dokumentazio idatzia: batzar-deiak

Errazetik hasi eta euskaraz idatzi lehenengo, ohitura hartzen joateko. Zalantza potoloak badituzue, laguntza eskatu.

7. Euskara gutxi badakizu, edo ikasten bazabiltza, dakizun apurra erabil ezazu

Hasieran zaila egingo zaizu buruko txipa aldatzea. Baina zenbat eta berba gehiago egin euskaraz, errazagoa izango da. Kotxean ibiltzea bezala: zenbat eta gehiago erabili, konfiantza gehiago, errazago, azkarrago...

8. Lagun iezaiozu euskara ikasten dagoenari

Ikasten dagoena, ahalegin itzela egiten ari da. Azkar-azkar berba egiten badiogu, ikaratu egingo dugu, eta betikoa esango du: *bermeotar hauek ulertzerik ez dago!*. Baina astiro eta ondo ahoskatuz esanez gero gauzak, ulertu egingo eta asko lagunduko diogu.

9. Webgunea

Interneteko erabiltzaileak gero eta gehiago dira, eta askok jotzen dugu bertara informazioa topatzeko. Bermeoko elkarteei buruzko informazioaren bila dabilzanak, gehienetan, bermeotarrak izango dira, hau da, euskaldunak. Zergatik, orduan, gaztelaniaz bakarrik?

10. Geurea delako, Geurien be bai

Berba egin, erabili, idatzi, olgatu, kantatu, gozatu, ondo pasatu euskaraz. Bazkideekin, kirol-monitorearekin, txokoko arduradunarekin okinarekin, umearekin, banketxeko langilearekin, udaltzainarekin, kaleko lagunarekin, auzokoarekin. Goizean, arratsaldean, gauean, parrandan, korrikan, bazkaltzen, afaltzen, entrenamenduan, mendian. Pozik, nekatuta, umoretsu, haserre, azkar, astiro. Ahal duzun guztietan erabiliz gero, denok irabazle!

»»» Udalaren laguntzak

Herriko elkarte guztiek zuen jarduna euskaraz izateko hainbat laguntza dituzue:

Webgunea

Elkarte askok web gunea duzue eta askok baita euskaraz ere. Baina, sarri, euskaraz idazterakoan zalantzak izaten ditugu, bizkaieraz, batuan, ortografia, terminologia... Horretan guztian laguntzeko ere zuen esku dago Udaleko Euskera Saila.

Materiala

Gabonak datozela eta loteria saldu egin nahi dugula, baina ez dakigula euskaraz zelan jarri; ze hiztegi daude? Jo ezazu Udaleko Euskera Sailera.

Dokumentu-ereduak

Sarri erabiltzen diren inprimakiak edo dokumentuak zuen esku:

- Estatutuak
- Orri-buruak
- Albaranak
- Fakturak
- Ordainagiriak
- ...

Testuak egokitu eta zuzentzeko

Barne-dokumentuak, bazkideentzako gutunak, herritarrentzako kartelak...

Aholkularitza iraunkorra

zuen elkarte euskalduntzen laguntzeko aholkularitza iraunkorra eskaintzen du Udalak. Horrela, zuen elkartearen beharretara egokitutako urratsak finkatu ahal izango ditugu, zuen barne- eta kanpo-harremanak euskaraz izan daitezzen. Bestalde, euskararen normalizazioaren inguruan edozein zalantza baduzu, edo laguntza behar izanez gero, lagunduko dizugu.

